

Gorbeialdeko bost ikastetxetan landu da bertsolaritza aurten

Gu ere bertsolari programaren baitan, gure ikastetxetan barrera bertsolaritza lantzen aritu dira Unai Mendibil eta Iñaki Viñaspre. Umeek bertsoekin jolasteko aukera izan dute eta bertsoei ekinez, gozatzeko eta euskararekin jolasteko ikasi dute. Oso balorazio positiboak jaso ditugu haur zein irakasleengandik.

Azken urteetan beste elkarte eta euskara eragile askok ere euren babesa adierazi diote gure proiektuari.

GU ERE BERTSOLARI programa "Bertsolaritzaren Curriculum" lanean oinarritzen da eta lau eremu lantzen ditu: **MUSIKA, KULTURA, HIZKUNTZA eta TREBETASUN PERTSONAL ETA SOZIALAK.**



Gorbeialdeko bertso-eskolak

Bertso eskola zure zain dago!

ARAMAIO

GAZTEEN TALDEA (17-19 urte): Asteartetan. Orduetgia: 19:30-20:30. Irakasle: Lierni Altuna eta Xabi Igoa

GAZTETXOEN TALDEA (13-15 urte): Asteazkenetan Orduetgia: 18:30-19:30. Irakasle: Xabi Igoa.

HAURREN TALDEA (10-12 urte): Asteartetan Orduetgia: 17:00-18:00. Irakasle: Garazi Eriz.

MURGIA

GAZTETXOEN TALDEA (13-17 urte): Asteartetan. Orduetgia: 16:15-17:15. Irakasle: Unai Mendibil.

URKABUSTAIZ

HELDUEN TALDEA: Izarran, ostiralean. Orduetgia: 19:00-21:00. Irakasle: Abel Enbeita

GAZTEEN TALDEA: Izarran, ostiralean. Orduetgia: 16:30-18:00. Irakasle: Iñaki Viñaspre.

LEGUTIO

GAZTETXOEN TALDEA (10-14 urte): Ostiralean. Orduetgia: 18:30-19:30. Irakasle: Joana Camara.



Ikastetxeen arteko TOPAKETA

Urtero egin ohi dugun bezala, aurten ere elkartu ginen gelan egindako lana elkarri erakusteko Izarra, Murgia, Legutio eta Aramaioko ikastetxeak. Aurten Izarran elkartu ginen.

Goizean jolastu eta gorputza nekatzeko aukera izan zuten gure gaztetxoek.

Bazkari gozo baten ostean, arratsaldean, bertsoen txanda iritsi zen. Asmakizunak, Ai zapotxin, bertso postalak eta askoz gehiago entzuteko aukera izan genuen. Paula Amilburu bertsolaria ere etorri zen eta erakustaldi ederra eman zigun.

Hori gozamenal!

Izarrako oholza gaina zein aulkiak disfrutatu zituzten bertaratutako ikasle eta irakasleek.

Gorbeialdean bada etorkizunik!!



ARABAKO bertsolari TXAPELKETA 2013



Arabako Bertsolari Txapelketa inoiz baino indar gehiagorekin pasa da. Inoiz baino bertsolari gehiago, 51 bertsolari, inoiz baino gai jartzaile gehiago, finkatzen doan epaile talde batekin eta bere zain zegoen arabar bertsozale fidelekin.

Oihane Pereari lotu zaio txapela. Printzipal aretoa bete-bete, 700 entzuleren txalo eta algara artean ospatu da Arabako Bertsolari Txapelketako finala. Oihane Perearen atzetik (616p), Manex Agirre (606p), Iñaki Viñaspre (411p),



Asier Otamendi (410,5p), Ruben Sanchez (371,5p) eta Jagoba Apaolaza (341p) geratu dira, hurrenez hurren.

Zorionak Oihanel!

Zorionak Manex!

***Hurrengo urtean Kuadrilla ArtekoA izango dugu, beste bi urte itxaron beharko dugu txapelketaz gozatzeko!!

Urtea SAIOZ SAIO

Aurten ere, saio andana egon da gurean:

- 2012/09/15: Izarra Txapelketarako aurrekanporaketa.
- 2012/11/09: Murgia Bertxoko sariketa.
- 2012/12/01: Legutio Poteoa.
- 2013/01/03: Aramaio Jaialdia.
- 2013/01/19: Abornikano Txapelketaren aurkezpena.
- 2013/02/23 Aramaio Txapelketaren finalurrekoa.
- 2013/04/26: Izarra Ikastetxeen topaketa.
- 2013/06/08: Izarra Poteoa.



Uda datorrela eta bertsoa ere gori-gori dabil Gorbeialdean barrena, Ekainetik Irailera egongo da zer gozatua gure areto, taberna, kale eta plazetan. Adi egon eta ez galdu zure inguruko bertsolariak jarraitzeko. Menuaz gozatu,

EskolartekoA: festa handia!

Legution izan zen Arabako Eskolarteko Topaketa. Arabako bertso eskola ezberdinetako kideek parte hartu zuten eta egun osoko festa gozatzeko aukera izan genuen.

Goizean hamalau urtetik beherako txanda izan zen. Sorta ederrak abestu zituzten eta bertsoan ere ale politak joan ziren. Bazkalarretik poteoa egin genuen bertsoz bertso eta tabernaz taberna (eskolarteko zein ez eskolarteko adina izan).

Elkarrekin bazkaldu eta gero gazteen txanda heldu zen. Sor-tak maraka, gitarra, triki eta abarrekin eta bat batekoak fin.



Denentzako saria egon arren, Euskal Herriko Eskolarteko Txapelketarako txartela eskuratu zutenak: Peru Abarrategi (txapelduna) eta Iñaki Tena (txapeldunordea) izan ziren. Guz-tientzat ere gure txalo handiena:

gora ZUEK!!!

Zatoz Arabako bertsolariak animatzera Euskal Herriko Eskolarteko txapelketara!!

Orion Ekainaren 22an izango da

Bertsoaren tartea

Arratsalde on Legutio

Hau da gure bertso eskola

Izarratik gatoz eta

Bero daukagu odola

Abornikano, Izarra

Ta Bitoriano elkartuta

Cocktail esplosiboa da

Hori ezin duzue uka

EZ DA NORMALA

GUREA EZ DA NORMALA

EZ DA NORMALA

GUREA EZ DA NORMALA

Hau da bigarren urtea

Bertso eskolan gaudela

Orain kontatuko dugu

Gure istorio itzela

Institutuan hasita

Entxufea gure helburu

Holan gairitu genuen

Euskara eta inguru

EZ DA NORMALA...

Hasieran lotsatuta

Koplatxo bat kantatzeko

Ta orain ikusten duzue

Egiten dugu perfekto

Gure bigarren urtea

Izan da oso arraroa

Apirila ailegatuta

Hasi baitugu kurtsoa

EZ DA NORMALA...

Aurtengo fundamentua

Utziko dugu atzean

Ez da berriz gertatuko

Ziur datorren urtean

Bertso-eskoletan badago

Lekua guztientzako

Guretzako egon bada

Zergatik ez zuentzako

EZ DA NORMALA...

Bertso sorta egin dugu

Gainera ezin hobeto

Bapatean ez dugu egiten

Gehiegi ez abusatzeko

Aurretik bagenekien

Zein den gure balorea

Txapelik ez zen guretzat

Ta ekarri dugu gurea

Doinua: Guantanamera



Arabako Bertsozale Elkartea
Benito Perez Galdos, z/g- Amaia Zentroa
945 010505/ araba@bertsozale.com



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

www.alava.net



KULTURA SALA
DEPARTAMENTO DE CULTURA

www.arababertsozale.com
www.bertsozale.com
www.bertsoa.com